



Zinkunegi Aruti'tar

Joseba Indalezio



1885-1964

**ZINKUNEGI
AÑUTI'tar
JOSEBA
INDALEZIO**

Sendagiñea

Euskalzalea

Idazlea

Itzultzañea

Hizlaria

Politikaria

Aita

Aitona

Idazlana:

Jonan Zinkunegi Arzelus

Idazkera:

Neuk idatzitakoa batuan egiten saiatu naiz, baina aitonaren eta garaikoaren idatziak berak idazten zuten eran utzi ditut. Besteenak ere zeuden bezala utzi ditut, ez dut ezer zuzendu.

Argazkiak:

1943 tik aurrerakoak bere seme Andoniren artxibotik gehienak, zaharragoak bere alaba Agurtzane-ren albumetatik jaso ditut. Azken omenaldietakoak neureak dira.

Agiriak:

Gehienak Agurtzane, bera hil arte zaindu zituen eta ondoren Amalek zainduta. Azkenik nire eskue-tara iritxi eta sailkatu ondoren, batzuek gure artxiboan jarraitzen dute eta beste batzuek "Sabin Arana fundaziora" pasa genizkien eta han daude gaur egun.

Interneten bidez bere idazlan asko bildu ahal izan ditut ere.

Bestalde, Jesus Mari Makazagak (UPV/EHU Euskara zerbitzuetako Zuzendariak): "Jose Zinkunegiren sendakintz-euzkera-ren oinordeko gara", Joseba berari buruz emandako hitzalditik jaso dut "Euzko Irakastola Nagusia"n 1937an gertatutako gehiena.

Aita Santi Onaindiaren hitzak, ehungarren urteurreneko ERREZILGO hitzaldian berak esandakoak ere erabili ditut.

Guda ondorengo "Colegio Medicos"eko eta Zarautzko alkatearen erantzuna Jose Antonio Recondo medikuarengandik lortu ditut, Josebatzaz, bere libururako, berarekin izandako harremanen bidez.

Beste datu batzuek Josebaren iloba, Elvira Zavalaren bidez ere jakin ditut eta erabili ere.

Josu eta Keparen bizitzaren datu gehienak beren seme alabei esker jakin ditut.

Muntaketa:

Jonan

Inprimaketa:

Madrilgo GRUPO RGA PRODUCCIÓN GRÁFICA & PUBLICIDAD, S.L. inprimategian.

Eskerrak:

Liburua osatzeko ikerketetan erabili ditudanen erreferentziak eta zatika liburuxkan sartu ditudanak bertan aipatzen ditut, Agurtzane eta Amalek berak gordetako paper gehienak erabili ditut noski hau osatzeko. Baita "Euskal Esnalea" "El Día" eta beste aldizkari eta egunkari zahar batzuetan idatziak ere. Baita Josebari buruz, aurkitu ditudan, idatzitakoak egunkari eta aldizkarietan ere erabili ditut.

Eskerrak denoi.

Bilbon, 2022go uztailak 19an

AURKIBIDEA 1

Abizena, jatorria	1
Gaztaroa	2
Hasiera	2
Sendia	3
Nor eta zer izan zen Joseba	4
Euskaltzale	5
Euskaltzain urgazlea	5
Jarduera batzuetako argazkiak	6
Zarautzko Euskal-jaiak	7
Ehun idazle	8
Zinkunegiren Euskera (Makazagak esanak)	9
Hizlaria	11
Idazlea	13
<i>Euzkelertijak eta abertzaletasunak</i>	13
<i>Academia de la Lengua Vasca</i>	13
<i>Euskal-Esnalea</i>	13
<i>Maite det baña... (Euskal Esnalearen saria)</i>	14
<i>Idaztietzaz</i>	15
<i>Euzkoabendaren alde</i>	15
<i>Euzkoabendaren etorkizuna</i>	15
<i>Euskaltzaindia dala ta</i>	16
<i>Cincunegui ala Zinkunegi</i>	16
<i>Kristautasuna - Filosofia (Balmesen "El Criterio" etab.)</i>	17
<i>Nere jarraibide / Yosu, Mirenen semea</i>	17
<i>Oneraspen bidea</i>	17
Egunkarietan	18
Itzultzailea	19
<i>Irizpidea ("Balmes"en El Criterio)</i>	19
<i>Éraondoko azkenengo atabalaria</i>	20
<i>Popatxu</i>	21
<i>Yan-Pier Bidart</i>	21
<i>Zenbakiztia</i>	21
<i>Nagusi lan-gosea eta bere morroiari bizkarreko larruaren kentzalea</i>	22
<i>Pello Mari</i>	22
<i>Iñak II</i>	22
<i>Petrus</i>	23
<i>Kozko Muñoa</i>	23
<i>Kepa deunaren ollaskoa</i>	23
<i>Ferval</i>	24
<i>Zigor</i>	25
<i>Ibarrola (Luzearek hasi eta Josebak bukatuta)</i>	26
1936 Guda eta ondorengoak	28
Unibertsitateko ekintzaile (Sendakintz euzkera)	29
Hiztegitilea	31
"Tribunal Médico Militar"eko Sendagile	32
IPARRALDEAN - ERBESTEAN	34
<i>Euzkadi Ospitalea Bartzelonan</i>	34
<i>St. Christau-Askain-Kanbo-</i>	37
<i>Donibanen bakardadean</i>	39
<i>EAIko eskuordea</i>	40
<i>Aberri Eguna Baionan 1947an</i>	40
<i>Herri-miña</i>	43
<i>Euskera Batua</i>	44
<i>Bihotzekoak jota 1946an</i>	46
<i>Euskal Jaialdiak</i>	49
<i>Erbestearen bukaera - Indultua</i>	49
Berriro Zarautzen	52
AZKEN HAMASEI URTEAK, 1948-1964	53
<i>"Colegio de Médicos" ek etzuen baimendu medikuntzan jarduten jarraitzeko</i>	53
<i>Andoni eta Amalaren ezkontza, Luzearen heriotza eta Anderen jaiotza</i>	54
<i>Jon Andoni eta Amale</i>	55
<i>Andonik argazki denda eta Lide</i>	56

AURKIBIDEA 2

<i>"IBARROLA", Anderen lehenengo jaunartzea eta Lirañe</i>	57
<i>Jonan lehenengo jaunartzea eta sendotza Ander eta talde osoarekin</i>	58
<i>Zigor opera</i>	60-61
<i>Koruko, eta Joseba sendiarekin Irunen eta Arantzazun</i>	61
<i>Eneko eta Kepa-Usoa ezkontza</i>	62
<i>Josu-Miren eta Ane-Joxemari ezkontzak</i>	64
<i>Gentzane, Amaia, Onintze, Ibon, Mikel, Maider eta Iñaki</i>	65-66
<i>"Mundo mejor"en azkeneko argazkiak</i>	67
<i>1964-01-09 an ZENDU ZEN</i>	67-68

OMENALDIAK

<i>Euskerazaintzak plaka bere jaiotetxean</i>	71
<i>1986go azaroan 22an, bere jaiotzako ehun garren urtean</i>	72
<i>Omenaldia egunkarietan</i>	73
<i>Zarautzen kalearen izena</i>	74
<i>EHUK 75 urte - 2011/12an</i>	75
<i>Bilboko Unibertsitatea</i>	76
	77

GEHIGARRIAK

BERAK GORDETAKO PAPERAK	79
BESTE LAN BATZUEK, zirriborroak, sozialak etab.	80-87
ARGAZKI GEHIAGO	89-102
OROIGARRIAK	103

MARKELIÑE eta seme alabak

Markeliñe (Martzelina)	105
Agurtzane	107-110
Markelin	111-114
Gotzon	115-116
Andoni Pillipa	117-120
Ane	121-124
Josu	125-126
Kepa	127-134
	135-138

ABIZENAREN JATORRIA

Lehenengo Cincuneguien bataio agiria 1582an aurkitu dut Errezilen, honek Josephe zuen izena eta bataio agirian bere aitaren izena agertzen da baina amaren daturik ez dago. Lehenengo Arruti ere Errezilen aurkitu dut 1592an, honek Joanes zuen izena eta bestearenean bezala aitaren izena bakarrik agertzen da. Honen ondorengo zuzenak Joseba Indalezioren belaunaldia arte ez ziren Errezildik aldendu, belaunaldi honetan Josebaren bi arreba behintzat monja joan ziren eta José Andrés anai misiolaria izan zen. Joseba ere izan zen Errezildik kanpo bizi izan zena, lehenengo ikasketak egitean eta geroztik bere medikuntza jardueran.

<i>Bataio Agiriaren Laburpena</i>	
IDENTIFIKAZIOA	
Izena:	Josephe
Abizenak:	Cincunegui, -----
Data:	1582-09-23
Aita:	Pedro, Cincunegui, -----
Ama:	-----, -----, -----
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	San Martín de Tours, en ERREZIL

Lehenengo Cincunegui ren bataio agiria

<i>Bataio Agiriaren Laburpena</i>	
IDENTIFIKAZIOA	
Nombre:	Joanes
Apellidos:	Arruti, -----
Fecha:	1592-06-07
Padre:	Hironimo, Arruti, -----
Madre:	-----, -----, -----
Observaciones:	-----
KOKAPENA	
Fondo:	San Martín de Tours, en ERREZIL

Lehenengo Arrutiren bataio agiria

<i>Ezkontza Agiriaren Laburpena</i>	
IDENTIFIKAZIOA	
Senarra:	Juan Bautista, Cincunegui, Cincunegui
Emaztea:	María Josefa, Arruti, Cincunegui
Data:	1869-07-06
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	San Martín de Tours, en ERREZIL

Aita Santi Onaindiak zioenez 1985ko Josebaren jaiotzaren 100gn urteurrenean egindako omenaldiko hitzaldian, Joseba “sendi on” batean jaioa zen; bere gurasoak Juan Bautista eta Maria Josefa Errezilen jaio, bizi eta hil ziren beren aurrekoak bezala. 1869an ezkondu ziren eta 12 seme alaba izan zituzten.

Joseba bederatzigarrena, 1885eko apirilaren 29an jaio zen.

Garai hartan nahiko normala zen sendikoen eta oso ingurukoekin harremanak izatea eta horrela lehengusuen artean ere bikoteak osatzea.

Kasu honetan, akaso, ikusi dezakegu horren adierazpen garbia, bere asaben artean, bere gurasoak lehengusuak zirenez, itxuraz, hiru “Cincunegui” agertzen dira ba beren lehenengo 4 abizenetan, hau da Josebaren lau lehenengo abizenenak “Cincunegui, Arruti, Cincunegui, Cincunegui” ziren.

Ahal daitekeena ere zera da, garai hartan abizena bezala etxearen izena erabiltzen zen eta, ba daiteke, "odolez" ez izatea lehengusuak ere.

<i>Bataio Agiriaren Laburpena</i>	
IDENTIFIKAZIOA	
Izena:	José Indalecio
Abizenak:	Cincunegui, Arruti
Data:	1885-04-30
Aita:	Juan Bautista, Cincunegui, Cincunegui
Ama:	María Josefa, Arruti, Cincunegui
Oharrak:	-----
KOKAPENA	
Fondoa:	San Martín de Tours, en ERREZIL

GAZTAROA

Bere gaztaroari buruz ezer gutxi esan dezaket, oraingoz behintzat.

Nik dudan bere bizitzaren lehenengo berria Valladolideko unibertsitatean egin zituen medikuntza ikasketak dira. Horren lekuko, 1911ko abuztuaren 12an jaso zuen medikuntza titulua daukagu:



HASIERA

Ondoren sendakuntzan jardun zuen bizi osoa, Aian hasi zen lehenengo urteetan, 1919 inguruan *Erreterian* jarraitu zuen eta 1920tik aurrera *Zarautzen* haritu zen 1936ko guda arte. Ondoren Bilbon Euskal Unibertsitateko irakasle izan zen, denbora gutxian, Bilbo frankisten menpean erori artean. Gero *Bartzelonan* eta *Kanbon*, atzerrian egon zen garaian alemaniarrek Frantzia menperatu artean. Geroztik etzun jarraitzerik izan, ez erbestean ez eta *Zarautza* itzuli ondoren ere.

Lehendabiziko Herria Aia izan zen, bere jaioterritik hurbil. Bertan, garai haietako, nahiko aurreratua izan zela esango nuke zeren "X izpiak" ere erabiltzen zituzten bere kontsultan, iritsi zaizkigun zigiluetan ikusi daitekeenez, berak eta Lasa beste mediku batekin batera. Tresna hau ere gudan errekisatu zioten beste ondasun guztiekin batera.



SENDIA

Bataio Agiriaren Laburpena

IDENTIFIKAZIOA

Izena: **Marcelina Francisca**

Abizenak: **Zavala, Segurola**

Data: 1893-10-07

Aita: Agustin Felipe, Zavala, Zubiria

Ama: Manuela Antonia, Segurola, Arrizabalaga

Oharrak: -----

KOKAPENA

Fondoa: San Esteban, en AIA

Aian bertan ezagutu zuen bere emaztea izango zena, Markeliñe Zabala Segurola,

(Amona Martzelina deitu ohi genion) Aiarra jaiotzez, sei neba ahizparen artean bera erdikoak izan zen.

Bere neba Santirekin harreman sakonak izan zituen bizi osoan.

Bertan ezkondu ziren 1917an.

Laster izan zuten lehenengo semea, naiz eta hau jaiotzean bertan hil zen. Hala ere Ander izena jarri zioten.

1918go ekainaren 5ean, Markelin, ondo jaio zen lehenengo semea, *Aian*.

Ondoren Erreterian jarraitu zuen bere sendakuntza jarduera.

1919go abuztuaren 10ean bi garren semea hau *Erreterian*, Gotzon, eta bertan ere, 1920go ekainaren 6an hirugarrena, Andoni jaio zen. Handik lau bat hilabetetara *Zarautza* joan ziren eta bertan haritu zuen bere jardueran, medikuntzan, 1936 arte.

Bertan izan zituzten beste lau seme alaba txikiak, 1922/05/18an Ane, 1926/06/18an Josu, 1929/06/04ean Kepa eta 1931/06/17an Agurtzane.


Sendia zaintzea ere izan zen bere bizitzako jarduera garrantzitsuenetakoa (ahal izan zuen garaian, noski).



NOR ETA ZER IZAN ZEN JOSEBA (1)

Aurpegi asko zituen Zinkunegik polifazetikoa zen: medikua (*sendalaria*, garaiko terminologian) euskaltzalea, idazlea, itzultzailea, unibertsitateko ekintzailea, hiztegiilea, irakaslea, euskaltzain urgazlea, kristaua, abertzalea... Gauza asko zen Zinkunegi. Glosa ditzagun, laburki bada ere gure gizonaren aurpegi horietako batzuk. Medikua zen oroz gaintik, eta medikuntza praktikatu zuen bere bizitza osoan; baina, esan bezala, alderdi horrez gain, beste hainbat aurpegi ere bazituen mediku errezildarrak.

Lana zen haren ustez bizitzaren zutabe edo gurpil garrantzitsuena, baina lanarekin batera gizakiak atsedena eta jolasak ere nahitaezkoak dituela esaten zuen: horra hor, Zinkunegiren ustez pertsonen bizitzaren hiru zutabe edo gurpil nagusiak.



Jolasarekin, aisialdiarekin lotutakoak dira Zinkunegiren gainerako aurpegiak:


- **Euskaltzale** amorratua zen, eta ohikoa zen euskal kulturarekin harremana zuen ekitaldietan, batean eta bestean, hura aurkitzea.
- **Idazlea**: euskaltzale izate horrek berekin dakar zenbaitentzat idazle lanak egitea ere, hartarako gogoia eta eskua izanez gero bederen
- **Itzultzailea**: sormen-lanez baino gehiago arduratu zen, nolahi ere, itzulpen lanez.
- **Unibertsitateko ekintzaile** ere izan zen: Zinkunegiren nahia zen euskarak jakintzaren, zientziaren, unibertsitatearen munduan lekua bazuela erakustea
- **Hiztegiilea**: aipatu berri dugun helburu hori lortu nahian, hiztegiintzari ere heldu zion
- **Euskaltzain urgazlea**: bestalde, 1919an euskaltzain urgazle izendatua izan zen, Euskaltzaindia sortzearekin batera.
- **Irakaslea**: esan bezala, Sendakintz-euzkera irakasgaiaren arduradun egin zuten Euzko Irakastola Nagusia eta haren Sendakintz Ikastola sortu zenean.

¹ Jesus Mari Makazagak "Jose Zinkunegiren Sendakintz-euzkera-ren oinardeko gara" 2011an emandako hitzalditik

EUSKALTZALE

Euskaltzale amorratua zen, eta ohikoa zen euskal kulturarekin harremana zuen ekitaldietan, batean eta bestean, hura aurkitzea.

Aurrenetako idatzi bat daukagu, Akademiari lotutako artikulua bat, 1914 ean Euskal-Esnaleak Akademia sortzearen egokitasunaz, edo egokitasun ezaz, galdera egin zien bere irakurleei eta Josebak honela eman zuen iritzia:



Euskaltzain urgazlea



Gutun hau jaso zuen EUZKO IKASKUNTZA tik bidalia, bertan horrela zion, besteak beste:

«27 de Octubre de 1918

Muy Sr. mío: La Academia de la lengua Vasca, en su sesión celebrada el día de hoy, ha nombrado a usted, por unanimidad, académico correspondiente, con derecho a asistir, con voz pero sin voto, alas asambleas ordinarias de esta Corporación.

Confiamos en que por el amor que profesa V. al idioma, se servirá V. aceptar el caso que se le confiere e ilustrar a la Corporación con sus reconocidas luces. esperamos que en el plazo...»

Gutuna Akademiako zuzendari Resurrección Maria Azkuek eta idazkari Luis de Eleizaldekin sinatzen dute.

Bukaeran ohar bat dago: *Idazki au erderaz bidaltzen zaizu, batzar honen ez dualako oraindano yañaituko duan idazkerarik erabaki. Bar-katu arén.*

JARDUERA BATZUETAKO ARGAZKIAK

Ez dakit zer motatako jardueratan izango zen argazki hauek egin zituztenean, baina argi dago ez zirela jaiak ospatzen momentu haietan, zerbait garrantzizkoa egingo zutela seguru nago. Gutxi ezagutu ditut baina agertzen direnen artean Basarri, bertsolari eta idazleari, sari bat ematen hari dira, beste batean Uzkudun boxeolaria ere ba dago...



ZARAUTZKO "EUSKAL JAIAK" 1924-2022...

Zarautzko Euskal Jaien sortzaileen artean aurkituko dugu haren izena: Mauricio Flores Kaperotxipi, zarautzar pintoreari lotu zizaien Zinkunegi 1924ko irailaren 9an euskal usuario eta ohituretan erroturiko Euskal Jaia lehenbizikoz abian jartzeko. Nikolas Mugika pintorea eta Bonifazio Echegaray idazlea ere izan zituzten laguntzaile.²



Zer sendituko zuen berak, 1954gn urtean, berak eta bere lagunak 30 urte atzerago hasitako Euskal-Jai haietan, bere lehenengo eta hirugarren bilobak, Ander eta Amale, Euskal-Jaieko karroza batean ikusita eta urte batzuek beranduago, bera zendu ondoren, 1967an, urtero bezala Gentzane, Ibon, Amaia eta Mikel ere? Esan beharra da gaur egun, 98 urte ondoren, ohitura hura urtero ospatzen jarraitzen dutela Zarautzen.

² Jesus Mari Makazagak "Jose Zinkunegiren Sendakintz-euzkera-ren oinardeko gara" 2011an emandako hitzalditik
Zinkunegi Aruti'tar Joseba

Ehun idazle

Jar dezagun beste adibide bat: elgoibartar euskaltzale bati (Angel Osoro, "Aberri"ri) egindako omenaldia antolatzen duela euskal idazleen elkarteak Elgoibarren? Han agertuko zaigu gure medikua beste ehun idazle ingururekin batera.³



Euskal idazleen bilkura Elgoibarren 1933an
Argazki honetan, euskal idazleak 1933an Elgoibarren egindako bilera batean, besteak beste, Joseba Zinkunegi eta, gero bere suhria izango zen Ander Arzelus «Luzear» ere agertzen dira. Baita ere Elbira Zipitria «IRA», gerra ondorengo «Andereñoen-andereñoa» izango zena, ordurako jadanik andereñoa eta euskal idazlea bilakatzen zen.



“Luzear”ek, “el día” ko euskal-orrian, hiru eguneko idazlanetan ematen du bertan gertatu zenaren berri.

³ Jesus Mari Makazagak "Jose Zinkunegiren Sendakintz-euzkera-ren oinardeko gara" 2011an emandako hitzalditik

Zinkunegiren euskara

Badakigu garai hartako “euzkera” eta gaur egunekoak ezberdintasun handiak dituztela, honi buruz honela dio bere hitzaldian Makazagak:⁴

Zinkunegiren lan argitaratuak aztertuta, nolahi ere, uste dugu zer bait esan dezakegula mediku errezildarraren euskararen gainean: aurreikus dezakegu zein izan zitezkeen hizkuntzari dagozkionetan erabiltzen zituen irizpideak.

Luis Villasantek Sebero Altuberen Erderismos lanaren aitzinsolasean, honela dio egilearengatik:

“...zeren gizona, nahi ez nahi, mendeko umea bait da beti ere”.

Gauza bera esan dezakegu Zinkunegigatik ere: garaiko (edo, nahi bada, garaia) semea zela. Garai hartan, indarra zuten artean Pizkundearen mugimenduak bultzatzen zuten garbizalekeria-kontuek (Sabino Aranaren eta R.M^a Azkue-ren eskutik). Batez ere hiztegi-kontuetan, (nahiz ez han bakarrik), hiztegi eta termino garbiak behar ziren erabili, neologismoak; eta atzerritik mailegatutako hitz eta terminoak ahal zela saihestu egon behar ziren.

Jokabide hori ikusten diogu Zinkunegiri hiztegi eta terminologia kontuetan. Hona haren lan batzuetan aurkitutako neologismo batzuk (parentesi artean eman ditut haien ordainak, gaur egun Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuak onartzen dituenak):

ABENDA (arraza)	ERTIJA (artea)
YAKIDIA (jakintza)	UGORRA (alkohola)
UGORKERIA (alkoholismoa)	ZENBAKIZTIA (arimetika)
ADIA (gogoa)	EKALDIA (gimnastika)
KIMIZTIA (kimika)	OSAKIZTIA (medikuntza)
IGIKUNA (mugimendua)	EINKA (oreka)
SENDAGILEA (medikua)	TXAPELTZA (txapelketa)
KIRIOTZA (nerbio-sistema)	IÑARKUNA (funtzioa)
GENTZA (bakea)	IDAZTIA (liburua)
ERESKIÑA (musika-instrumentua)	ERESIA (kantua)
EDESTU (kontatu)	IZPARRINGIA (egunkaria)
BAZKUNA (elkartea)	PRANTZERA (frantsesa)

Alde horretatik, arrotzak egiten dira, gaur eguneko ikuspegitik begiratuta, Zinkunegik darabiltzan hainbat hitz eta termino (gogoan izan Euzko Irakastolako ikasgaien euskal izenak ere, goraxeago ekarri ditudanak). Garai hartako neologismo batzuek arrakasta izan zuten, eta gaur egunean erabiltzen dira (sendagile eta eresi izan daitezke horietako batzuk); beste asko aurkitzeko, berriz, garaiko liburueta eta egunkari/aldizkarietara jo beharra dago.

Joskerari dagokionez, bestalde, Altubek Zinkunegiren joskera ederra goستن du bere Erderismos lanean, eta halaxe dela aitortu beharra dut, haren joskeraren eta estilistikaren edertasunaz gozatzeko aukera izan dudanez. Euskal sen egoki-egokia du itzultzean eta euskaraz sortzean: erraz ulertzeko testuak eta edertasun handikoak taxutzen ditu mediku eta idazle errezildarrak. Baliabide estilistikoak ere egoki egoki erabiltzen ditu, diskurtsoaren dinamikotasuna lortzeko (elipsia), irakurleen/entzuleen arreta erakartzeko (galdera erretorikoak, interjekzioak), edukiaren ulermena errazteko eta poetikotasuna erdiesteko (konparazioak, metaforak...).

Arestian esan dugu garbizalekeria lexikoak izan zuela batez ere indarra garaitu haieran, garbizalekeria sintaktikoaren aldean behintzat. Hala ere, Altube lehenbizikoaren kontra bortizki borrokatzen bada ere, bigarrenean erortzen dela aitortzen du Villasantek, bai haren lanaren aurkezpenean eta bai Historia de la Literatura Vasca lanean ere. Esaten du Erderismos-ek baduela bere erabilgarritasuna, bere garrantzia eta pisua (garaian egiten ziren akats batzuk baztertzeko), baina gaineratzen du batzuetan gehiegizko garbizalekeria sintaktikoan erortzen dela Altube jauna bere hizkuntza-jardunean.

Esan beharra dago Zinkunegiren idatziei nabaritzen zaiela halako kutsu altubetar bat sintaxiari dagokionez.

- Elementu anaforikoak, adibidez, erdal jatorrikoak izan daitezkeen menderagailu edo lokailu prepositiboak, ez ditu erabiltzen: ZEREN; ZERGATIK; ZER; NAHIZ ETA ...

“Gai au azaltzea nere gain ezarí diaten ezkerro, nik ezetzik ezin esan izan diet, onelako egintza edefetarako nere laguntzatxoa ukatzen ez dakit eta.”

“Euskalefí'ko zeietan, plazetan, lenago ikusten ziran dantza pozkaí, pizkor eta ariñak, egizko alaitasunak,

⁴ Jesus Mari Makazagak “Jose Zinkunegiren Sendakintz-euzkera-ren oinardeko gara” 2011an emandako hitzalditik

alaitasun garbiak sortutakoak ziralako, ikusten zeudenen biotzetara ere poza ta alaitasuna eramaten zuten ayek,..."

"Gauza aundirik ezin dezakedala jakin afen, gaztedia maite-maite detalako, auei, onuratsua izango zaiela uste detana esan gabe ezin utzi egokierarik detanean."

Diskurtsoan ere, esaldiak taxutzerakoan, tradizioko euskararen eta gaur egungo euskararen jardunetik, erabileratik pixka bat aldenduz, aditza eta predikatua azken buruan kokatzeko joera nabaritzen zaio; ikus ditzagun, horren erakusgarri, Zinkunegiren testuetatik ateratako adibide batzuk:

"Gazteak beren kristau izakera galtzeko ainbeste afixku ta galtzori dauzkaten aldi auetan, izakera ori nola eratu ta sendotu bear duten erakustea eta ofetarako bultza ta indartzea gazte oyei egin dezaieken gauzarik onuratsuen da."

"Gaurko gizadi goiberatu ta naspildu onetan, agian katoliko diranik ere oroitzeke dabiltzanei beren egin beafak begien aúfean jartzea garai-garaizko gauza da."

"Jokaldiren bat jokatzera uri batetik bestera juaten diranean geienak nola ibiltzen diran ikustea aski da."

...

Hizkuntza-kontuetan ere, irizpideak aldatu egin dira garai hartatik gaur egunera: esango nuke hobeto ezagutzen dugula euskararen tradizioa, eta, salbuespenak salbuespen, euskararen tradizio horrekiko katea ahal delarik ez eteten ahalegintzen gara; aldi berean, orobat, nazioarteko hizkuntza-irizpideetara irekitzen ere bai, euskara nazioartera hedatzen; horretarako, baztertu egin dira Pizkunde garaiko neologismo asko eta asko, nazioarteko mailegutzara behar zen guztietan jotzeko beldurrik gabe (beti ere, ahaztu gabe euskarak berak dituen barne-baliabideak).

Joskeran ere, Altubek, Azkuek eta abarrek bultzatzen zutena baino askatasun sintaktiko handiagoa darabilgu, euskararen tradizioa urratu gabe, beste hizkuntzetako egiturek euskara arlo teknikoetan erabiltzeko eskaintzen dizkiguten baliabide sintaktikoak baliatuz, eta zehaztasuna, zientifikotasuna eta testuen irakurgarritasuna eta komunikagarritasuna jomuga izanik.

...

Garai hartan beharrezkoa zen euskara teknikoa, UPV/EHU sortu zenean eta gaur egun ere bai.

Iritsiko ahal zaigu berandu baino lehen irakasgai horren beharrik ez izateko garaia! Euskararen egoera normalizatua izango dugun eguna!

Horixe litzateke Jose Zinkunegi eta Iñaki Ugartebururi, aitzindariari egin geniezaiekeen omenaldi ederrena.

... ESAN DET⁵




Jesus Mari Makazaga EHUak 2011an antolatutako omenaldian hitzaldia ematen

⁵ Jesus Mari Makazagak "Jose Zinkunegiren Sendakintz-euzkera-ren oinardeko gara" 2011an emandako hitzalditik

HIZLARIA

Idazteko ez-eraz hitz-egiteko ere erraztasun handia zeukan. Eta onen testigu bezala, hiru hitzaldiren berri dugu, «*Eusko-Abenda*», «*Kirolak ¿ongile ala kaltegarri?*» eta «*Lana, atsedena ta jolasak*», bi lehenengoak Donostia'n emandakoak, lehenengo 1919garren urteko jorrailaren 6ean eta bigarrena 1925gn urteko jorrailaren 19an. Hirugarrena berriz Arrasaten eman zuen 1928an. Hirurak ditugu gai arruntak, baina jakingarriak garai hartarako eta gaurko, ordutik ona ia-ia ehun urte joanak izan arren. Hirurok laburki azalduko ditut hemen.

1) *Eusko-Abenda, bere sendotasuna len, orain eta gero.* (Donostia, Novedades aretoan 1920an). Hitzaldia.



Eusko abenda, erraza, bere sendotasuna bala-bala zebillen liburuetan eta itzaldietan. Ezta arrigarri, ba-koitzak berea zaindu ta goretzi bear du-ta. «Gure zañetan eusko odola daramagunok osatzen degun abenda, pizkorra, sendoa ta zaintsua zalako jakintsuak ala aitortzen zuten» diosku asiera-asieratik Zinkunegi'k. Eta eusko-abenda au, gure erraza, sendo ta bizkor ikusi nai du; len bezala orain eta aurrerantzean berdin, beti sendo ta indartsu. Baiña gure asaba ta aurretikoen indar eta kemena, sendotasuna, auldu ta gutxituz doala edozenek igartzen duana da. Eta onek naigabetzen zuen Zinkunegi, oraingo gizona ez omen da lengoa, aulago ta erkinago baizik. Samingarri zitzaion au, baiña ez samin-garriena, ba-zan beste zerbait min aundiagoa ematen ziona. «Geiago samindu izan nau -jarraitzen du-

abendaren beeratza au, aultze au, endakatze au, naitaezkoa, alabearrezkoa, gelditu ta eragotzi ezinekoa dala erriak uste duala oldozteak». ⁶

2) *Kirolak ¿ongile ala kaltegarri?* (Donostian, Novedades aretoan 1928an).

Bereziki kezkatuta agertzen zaigu garaiko gazteek kirolerako zuten gehiegizko joerarengatik; horren erakusgarri dugu hitzaldi hau: *Kirolak ¿ongile ala kaltegarri?*

Aita Santi Onaindiak honela dio Errezilen, Joseba jaiotzearen 100gn urtea ospatzeko egindako ekitaldian:



Kirol-zale genduan Zinkunegi, eta, beti geure endari begira, beste itzaldi bat eman bear izan zuen Donostia'ko areto oian, 1925g. urteko jorrailaren 19'an. Gaia: «*Kirolak, ongile ala kaltegarri?*»

Eta Itzaldiaren leengo lerroetatik, gaurko gure giroaz balebil bezela, onela diardu: «Gaur dan egunean kirolak guztia betetzen dute: gazteen eta gazte ez dira askoren buruetan ez dago beste gauzarik; bere biotzak kirolzaletasunak asezten ditu; kirolerazko bere izketaldi ta jarduna agortzen ez dan iturria da». Orduan ere, kirola nun an jartzen zuten beren oina, gaur bezela ain zuzen ere. Eta zaletasun batek ainbeste zabaltzen danean, ainbesteko garra gizartean jaiki-azten duenean, olakoak errien etorkizunari zuzenbide bat ezartzen dio.

Zinkunegi'k ala ere ba-ditu bere dudamuak. Zuzenbide on ta joera au onerako edo txarrerako izan ditezke, eta arek bertatik galde: «Gaurko kirolak eta kirolzaletasuna onerako ala kalterako ote zaizkigu? Onak ondo ikusten ditu, ark ordea ez. Eta zer dira kirolak? Labur esateko, jolasak; aldia alai ta atsegintsu emateko bidea. «Iñola ere ez dagokie -dio- beste maillarik». Jolasa bearrezko du lan egiten duenak, bai adimen lanetan, bai eskulanetan aritzen danak. Osasunari bear bezela begiratu bear zaio. Kirolak, beraz, askorentzat onak izan ditezke, eta dira.

⁶ Aita Santi Onaindiak Errexilgo omenaldian 1986an emandako hitzalditik.

Osasuna ta indarra, baina, ez dira berdin: «Indar gutxi ta osasun ona izan dezake batek, baita indar aundia ta osasun gutxi ere» Euskalduna beti izan da indarzalea. Eta zaindu du bere gorputza osasun ona eukiteko? Eta emen diardu Zinkunegi'k jakituri aundiz osasuna zer dan, nola zaindu bear dan eta gainerakoak ederki azaltzen. Osasun ona izateko soin edo gorputz-atal guziak neurritz zaindu bear dira; ez sabela bai ta begiak ez, bai burua ta besoak ez. Gorputz osoa, eta gorputzari kemena ezartzen dion animea. Onetaz asko luzatuko nuke neronek ere aren irakatsiak azalduz.

Kirolan artean ez du futbola bakarrik aipatzen: lasterketa, txirrindularitza, pelota, igeriketa, mendi zaletasuna ta abar. Gaur, ordutik ona sartuta beste kirol batzuk ere ezagutzen ditugu Euzkadi'n. Auetatik, zeintzuk ote dira onenak? Gorputzari, bere atal guztietan, igikun edo mugimendu geien dakazkienak. Gorputzari lan eragin bear zaio. Eta ain zuzen gorputzari ta animari dagokien lanari buruz amaitzen du bere itzaldia.

Gorputzaz onela dio: Lana osasungarria da, osasunarentzako bear-bearrezkoa; lanean billatu bear degu beraz lenengo gorputzak bear duan igikuna, eta kiroletan eta beste soiñekaldietan igikunoten osagarria, soñatal guztiak artu dezaten igikunen onura. Malla orixe ta besterik ez dagokie kirolai; or ongi daude; or goralgarriak eta osasungarriak dira; ortik beste batera aldatu ezkeru, ez ta ez».

Eta animeari buruz, onela: «Gorputz-atalak bezelaxe gogoalmenak ere beren igikunak beren kirolak bear dituzte; adimena ere erabiltzeko, lan egiteko eman zaigu; kiroleaz eta jolazeaz baño zerbait geiagoz itzegin eta arazotu bear du gizonak. Izparringietako kirol-atala baño zerbait geiagoz irakurri bear du adimendunak. Luzaro geldi dagoan gorputz-atala igartu egiten dan bezelaxe, lanik egiten ez duen adimena ere illundu eta itzali egiten da. Eta argi au itzaltzen ba-zaigu, zer alde eukiko degu abereekin?

Amaituz, emen J. Zinkunegi'ren bi itzaldien mamia. Min ematen zion biotz barruan eusko endaren ondatzek. Eta nolabait ondatzeki euskaia jarri nairik, azaldu zigun bere iritziak, eskatzen ziona, sakon eta ederki azaldu ere. Onak dioskunez jakintsua zan, eta ba-zekian nola adierazi euskeraz barruan zekarrena. Nire eritziz, bada, merezi ditu gure txalo beroak.⁷

3) Lana, atsedena ta jolasak (Arrasaten, 1928an). Hitzaldia.



Lana, jolasak, eta atsedena zituen gai gogokoenak bere sormen-jardunean, eta *Lana, atsedena ta jolasa*, izenburuarekin eman zuen hitzaldia 1928an Arrasaten.

Honela dio besteak beste lan honetan:

... eta egin lana lan egin bear danean, atsedena atsedena artu bear danean, eta jolastu jolastu bear danean, baiña ez irten beñere neurritik.

Bere esanetan, ohizko jardueraren gain beste zerbait egitea beharrezkoa du gizakiak, hau da atsedena, ogibidez esku lanak egiten dituenak, atsedendian buru-lanak datorkiola eta buru-lanak egiten dituenak, esku lanak ondo atsedena hartzeko, eta berak sendakuntza-ko jardueraren gain, euskeraz idatzi eta euskeraren alde egitea hartu zuen bere aisialdirako helburu eta bere bizi osoan euskeraren aldeko lanetan jasan zuen.

Ba zen beste hirugarren egin behar bat ere, kirola. Hau ere guztiz beharrezkoa dela dio, baina beti bere neurrian esaten du.

Zarautzko Udalak berrargitaratu zuen 2004ko irailaren 9an, Euskal Jaiaren egunean. Bertan gazteleraz itzulita ere agertzen da.



Zarautzko Udalak berrargitaratu zuen 2004ean.

⁷ Aita Santi Onaindiak Errexilgo omenaldian 1986an emandako hitzalditik.

Idazlea

Euskaltzale izate horrek berekin dakar, zenbaitentzat, idazle lanak egitea ere, hartarako gogoia eta eskua izanez gero bederen; eta arlo honetan ere, egin zigun bere ekarpena gure medikuak: sariak irabazteraino, gainera...⁷

Berak gehien egindako lanak itzulketak izan arren ba dira beste eratakoak ere, berak idatzitako lanak "osasuna", "kirolak", "euzko-abenda" (arrazta), "kristautasuna", eta nola ez "euskera" zituen gaien artean.

Bestalde badaude egunkarietan eta aldizkarietan idatzitako lanak ere.


Euskarari buruz zirriborro pila ditugu eskuidatziak, euskal gramatikari buruz, baita ere prestatzen hari zen hiztegi batenak mekanografiatuta ere (Lan honek ez du datarik, baina nire ustez guda hurrekoak direla esango nuke).

Lehendabizi bere idazlanak izendatuko ditut, jarraian beste hizkuntzetatik (espainol eta frantsesetik) itzulitakoak edota ipar-euskaratik gipuzkeratutakoak, eta baita hitzaldiak.

EUZKELERTIJAK ETA ABERTZALETASUNAK

Idatzi zuen lehenengo lanaren berri hau daukat: "Euzkelertijak eta abertzaletasunak" izenburuarekin 1914ean, Euzko Gastedija-ren saria jaso zuela dakit, baina oraingoz ez dut aurkitu idazlana.

ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA



Aurrenetako idatzi bat daukagu, Akademiari lotutako iritzi bat, 1914an Euskal-Esnaleak Akademia sortzearen egokitasunaz edo egokitasun ezaz galdera egin zien bere irakurleei eta Josebak honela eman zuen iritzia.

EUZKAL-ESNALEA

Bigarren lantxo bat ere badago 1918an, "Euskal Esnalea" izenburupean, bertan **Euskal Esnalea** zer den adierazten du eta euskera maite dutenei deia egiten die aldizkariaren lehenengo orritan. Erakundea lagundu beharra euskaldunen artean, ilean "ogerleko" batekin lagunduaz, aldizkariak berak ematen diena irakurlelaguntzaileri, haren truke, honela dio besteak beste:

"Ez uste izan ordea bazkunak bazkideak ematen dionaren ordañik ematen ez duala: bai, ordaintzen du, ta ongi ordaindu ala ere. Ara nola.

Amabostian bein ingurti edo errebista polit bat bialtzen die bazkide guziaz, eta guziak biltzen badira urtiaren buruan, idatzi edo liburu polit bat osatzen da;

500 orrialde edo ingoski inguru dituana. Edestiyak, ipuiak, neurtitzak, euskeratzazko gauza jakin-

garriak, bazkunak euskeraren alde egiten duana eta abar ekartzen ditu.

Orrez gañera, ingurtiyakin batera ematen ditu beste idazti polit batzuek: oraindaño eman dituanak auetxek dira: «Bilints. Neurtitzak eta neurri gabeko itzak»; Ipui onak », Bizenta Mogel'ek idatziak; «Jolasak», Agustín P. Iturriaga'k idatziak; ..."

...Beste gauza asko ere esan litezke, baña guziak esatekotan aldi luzca bearko genuke.

Esandakoa ez da gutxi. Itxu ez diranak argi ikusi dezateke Euskal-Esnai.ea'K zenbat lan eder ta txalogarri egin dituan...

Itxu ez danak esan det. Baña euskadunen artian asko dira naita itxu diranak.

Zinkunegi'tar J."

MAITE DET BAÑA... (EUSKAL ESNALEA-REN SARIA)



AITZAKIAK

MAITE DET BAÑA ...

¿Zer egin nezake nik euskeraren alde? Nik euskeraz idazten ez dakit, eta, jakin-eta ere, betarik ez daukat, bestela ere naiko zeregin bai-daukat.

¿Ez dakizula idazten? ¿Beñere así altzera? ¡Ezetz egingo nizuke!... Baña asitzeko ere betarik ez dezu... Zure sendikoai ta zure adiskideai ¿ez aldiezu beñere idazkirik egiten? ¿Euskeraz? ¡Bai zera... ez dakizu-ta!... Auñean ba-zenduzka esan bea' diezuna euskeraz esaten jakingo zenuke eta euskeraz esango zenukena, esango zenuken bezela ingian jaítzen ¿ezin asmatu dezu?

Azketsi baña... ergelxamara zerela esan bea' dizut, edo bestela zure maitasuna gezur' utsa dala: orain, zuk nai dezuna aukeratu.

¿Euskeraz asko irakuítzen aldezu? ¿Euskerazko idazkiak ekaítzen dituzten ingi asko zure etxeratzen aldituzu? ¿Zure etxean euskerazko zenbat idazti dauzkatzu? Asko-asko izango ez ote diran nago.

¡Irakuítzeko ere astirik ez det!...

¿Egunean órdu lauñden ba, órdu e'rdi bat azke ez izateraño lanpetua zabilta? ¡Gizarajoa! E'ruki zaitut...

Orain euskeraz idazten dutena ¿no'rk ule'rtu? Orí ez da gure euskera. Izkuntza beña so'rtzen dabilta. Itzegiten degun bezela idatziko baluteke...

Jakin det bai lengo batean idazki bat ama' bide' iraiku'ri eta ulertu ezin zendulako e'ri guzian batari ta besteari galdezka izerdi patzetan ibi'ji ziñala ze' esan nai zuan jakin zendun a'rteteraño... baña idazki ura etzan euskera za'nekoa, ezta be'rikoa ere... ¡e'nderazkoa zan!


¿Euskaldunekin euskeraz itzegiten dezu beti?

¿Mututu egin al zera?

Gizona, ez estutu; betarik ez dezula esan ezazu eta... kito.

Zinkunegi'tar J.

EUZKO ABENDAREN ALDEZ




“Euzko Deya”n 1921ean Osalari aber-
tzaleeri dei bat egiten die.

Honela dio besteak beste:

Orí ezeze beste gure abendatzazko gauza asko ere ez dakizkigu oraindik. Abenda bera oraindik ez dazaugu beař aña; bere bereztasun asko dauzkagu oraindik azteřtzeke. Bere lengo sendotasuna zenbaterañokea izan zan eta ura galtzera zeintzuk eragięiek ekari duten oraindik ez dakigu. Eragięie auetako batzuk aitatzen dirá, baña aitatzen ez dirán beste asko idoroko lirake, noski, biľakatuko ba-gendu. Osabide onak, egikořak, arkitzeko gauza oyek eta geyago azteřtzea beařa da. Azteřtu la ikasi-beařa daukagu, len izan zana eta orain dana. Ikasi ta erakutsi, izan beař duana ta nota izan erazi beař dan.

IDAZTIETZAZ



“Eusko Ikaskuntzaren Deia”n, 1923an,
euskeraz idatzitako liburuen beharrari
buruz idazlan bat.

Honela dio besteak beste:

...Eusko-Eria'k ere beraz, auřerakuntzarako, idaztiak bear ditu. Euskotařen artean irakuřtzeko zaletasun gutxi dala esan oi da, eta gure erian gutxięi irakuřtzen dala aitortu egin beař. Norbaitzuk azterkatu nai izan dute -batez ere euskeraz idazten danatzaz- ez ote dan geiago idazten gutxi irakuřtzen dalako ala ez ote dan geiago irakuřtzen gutxi idazten dalako. Bi esakun oye-tan baitiřena zein dan biľakatzea ez darabil orain; egia dan zerbait bietan dagona agiriřa da ordea: arean, gutxi irakuřtzen dala ta gutxi idazten dala, -eta ori orain iñoizkorik geyena egiten dala-; baña beař litzaken aldean uři idazten ba-da, idazten dan pitin ori ere ez ere. Eta au, euskeraz idazten danekiko ezeze eusko gaietzaz idazten dan guztiekiko ere utsa da. ...

EUZKO ABENDAREN ETORKIZUNA



Euzko abendaren etorkizuna, izenburuare-
kin, "Euskal Esnalean, 1926ko epailean" argi-
taratua.

Lan honetan kezkatuta agertzen zaigu, hala-
ber, euskal arrazaren ezaugarri-urratze na-
barmenagatik ere.

Hau bere biziko kezka handienetakoa izan
zen.

*Gaur egun, bere ondorengoan jarrera, zentzu
honetan, ez zitzaion oso atsegin izango ez bai
dugu, arrazakerian, bere ikuspegitik jarraitu.*



EUZKERA aldizkarian "Academia"ri buruz idazle batzuen iritziak argitaratzen hari zen eta Lauaxetaren iritzi bat argitaratu ondoren Josebak "Euzkadi" aldizkarian 1919an argitaratutako iritzi bat berrargitaratu zuten.

Bertan Josebaren kezka garbi agertzen dira "Academia" garaian egiten hari zen lanaren aurrean.

CINCUNEGUI ALA ZINKUNEGI

CINCUNEGUI ala ZINKUNEGI?

Abizen edo apellido bat besterik ez dan ori bi idazkera oietan ikusiko dezun eta baita oraindik lenego u' ren ganean gandortxo (') bat duela ere. Onela Cincunegi. Nola ote dagokio? Nola idatzi bear ote litzake beti?

Nik, abizen orixe daramadan onek, idasten ikasi manean, lenengo eraz irakatsi gidaten eta alize ikasi nuen eta u' ganean aitatutako gandortxo ofekin, gahera, Garai artun goienek, danak ez esatean, ofela egiten guten. Ulertzeko da beraz, nere jaiots-agirian eta nere batain agirian ere ofela agertzen da nere abizana.

Ofela bear ote litzake?

Abizen jatorria euskalduna dala agiri-agiri dago, bere itz-sozina ain agiri espadago ere. Edozein euskal-belarik igartzen dio euskeratikoa dana. Beraz ondo izateko euskal-idazkera dagokio ta bear du.

Impereraz oso gutxi idasten san aldi aietan, idasten guten banakak, bakoitzak ari zuan erara, ta beti euzko erderai jafaituz egiten zuten; orrik Cincunegi edo Cincunegi idastes. Gero zorionez Arana-Goiri, Askue ta abafekin euskeraren pistaldi betia etofi zandean idazkera ere batera-tzera edo alatu etofi san eta sorta san Euskaltzaindiak ontzat artu zuan gaur ia danak ontzat garabilgun euzkera edo ortografia.

Ora bada, euskerak idesteko gaur dabilkian agura oietan ez dago erdalunak erabiltzen duten e'rik (ez ta beafik ere, ikur ofi egosten zailkion otsak beste batzuein ordezu ditezkelako). Orrik dator Zinkune, abizenaren lenango atala, eta on peitzen zaion gi ofek ez da tarteko u' ren beafik, u' ofekin euskeraz irakufita erdalunak gi (u' ganean bi puntu-kin irakurtzen dala izango bealitzake.

Euskal erara idatzita beraz Zinkunegi izan bear du.

Aitortu bear nik beti ez dudala ofela idasten, ta izenpetzen, euskera-ren afitioa ezagutu manekoro ofela egiten ari nintzan ahan, ankoton or-don - bai baio geigotan-Cincunegi ere izenpetzen det. Lugekeritan maiz danan bat beafak nastera etofi lezaidake ni ez naizala ni esanaz. Bizi izan geran aldi "noregafi" aietan ofelako afizkuak izan dira.

Ni jaiotakoan agiri-liburuen ta batain-agiri liburuen Cincunegi abizenaz esafik ninduten. Nere bigiderako ikasketak egitezakoan, nere tituluak eman dirkidatenean eta abar, ofela izan naiz beraz oficialmente, ofelaxe.

Nere gogo ta ahan, logearen auzean ere euskal erara idatzita - nuzen dan beafak - ibiliken litzake. Neretza eta ondorengentzat onekero bear diran aldaketak egian egongo ziran Euzkadi'ko gauzak beste era batera joan izan be'liro. Zaha etofiko dira aldaketa oiek ofaz egin al izango diran egunak eta orduan bear diran dokumentuetan ipiniko dira.

Aldi ori etofiko dancan, ni illa be'nais, nere seme-alabak itza.

Idatzi honetan bere abizenaren euskal grafia nola den eta berak nola erabili «behar» izan zuen bere bizitzan, derrigorrezko grafia espainiarrarekin paper «ofizialetan» eta bere nahia euskaraz erabiltzea izan zen.

Idatzi zuenean, oraindik, berak horretarako garaia ezagutzea espero zuen, beraz, gerra ondorengo idatzia izango zela pentsatzen dut. Bere nahia betetzea ez ba zen ahal izango bera hil aurretik, "nere seme-alabek itza" esanaz bukatzen du.

Kasu honetan bai, bere ondorengo GUZTIAK, legez ahal izan denetik ZINKUNEGI erabiltzen dugu, bere ildotik jarraituz.

Kristautasuna - Filosofia

Lan ugari ditu, bai bere idatzietan eta baita itzulpenetan, bere kezka nagusienetako zen, kristautasunari buruz, lan hauek mekanografiatuta daude, ez dira inoiz argitaratu nik dakidanez, hemen izendatuko ditut batzuek, 1945 eta 1948 urteen arteko lanak direla uste dut, bere iparraldeko garaikoak:

- ***YANKOA GUGAN***
- ***YANKO MAITASUNAREN IZTIA***
- ***IZTI GUZIRAK ADELUA***



NERE JARRAIBIDE / YOSU, MIRENEN SEMEA



ONERASPEN BIDEA



Jatorrizkoa: "Mi Ideal", "E.Neubert"ek prantseraz idatzia. 1940.

 - Las consecuencias que se han seguido a nuestro pueblo de esta pérdida de su soberanía son desastrosas y lamentabilísimas. La raza latina se halla inficionada de espíritu irreligioso, mientras que la vasca ha sido una de las más sólidamente religiosas de la tierra, en tanto que conservó su libertad. La antes viril y nobilísima raza vasca se ha visto, desde el momento en que perdió su independencia, en inminente peligro de muerte del cuerpo y del alma; quebrantados sus caracteres de nacionalidad, iba a hundirse en el abismo de la corrupción latina. El remedio contra tamaña desgracia es el de unirse los vascos todos en el amor al lema nacional *Imun-Gotzue eta Lagi-Zorri*: DIOS Y LA LEY VIEJA. Quiere decir, que ha de amarse sobre todo a Dios y a su Religión, practicándola sinceramente en todas ocasiones y refiriendo a El la felicidad del pueblo vasco; que vuelvan a reunirse las Cortes de Nabara, las Juntas Generales de Gernika, las Hermandades de Araba, las Juntas o Asambleas de Gipuzkoa, y los Biztates de Zuberoa y Laburdi, investidas todas de la facultad soberana de dictar sus leyes, sin intrusión de Poderes extraños; preconizando además la unión voluntaria de los seis Estados en la Confederación libre de toda la Raza, en la EUZKADI soberana.

ABERRI EGUNA 1937 BILBON



Guda garaian, 1937 Bilbo oraindik frankisten menpean erori aurretik, Begoñan ospatu zuten Aberri Eguna, Bertako oroigarri moduan gorde zuten bertan ospatutako mezaren liburuxka.

ELA-STV 1945ean munduan



Parisen 1945go irailean ospatu zen “Munduko Sindikatuen biltzarra”. ELA-STV han izan zen eta mahaiburuan izendatuta agertzen zen “Euzkadi” beste herrialde guztien artean.



OCTUBRE
8
JUEVES

Bilbao, 1936

Año XXIV Edición y Administración: Correo, 17, 1.º Apartado de Correos: 234 Teléfono: 13.818 Número: 7.455

Euzkadi

PRECIOS DE ABONAMIENTO:
 Año (12 números) 4.500 Ptas.
 Semestre (6 números) 2.250 Ptas.
 Mensual (1 número) 375 Ptas.

UNA JORNADA HISTORICA PARA EUZKADI

HA QUEDADO CONSTITUIDO EL GOBIERNO VASCO

Elegido presidente del Ministerio provisional don José Antonio de Aguirre, fué proclamado ayer en el cargo, en una sesión solemne, en la Casa de Juntas de Gernika, prestando juramento aquí bajo el Arbol histórico de las libertades vascas

"Venimos a cumplir inexorablemente la ley y a mantener el orden", dice la declaración ministerial del Gobierno que acaba de constituirse.-Otros detalles de la jornada.

El artículo de este número... (text continues)

El primer Gobierno de Euzkadi

Presidencia y Defensa: José Antonio de Aguirre (Basque)

Gobernación: Teodoro de Montejo (Basque)

Hacienda: Hilario de la Torre (Basque)

Justicia y Cultura: Jesús María de Leizaola (Basque)

Obras Públicas: Juan de Arzoparria (Basque)

Trabajo, Precisión y Convenciones: Juan de las Torres (Basque)

Salud: Manuel Juan García (Basque)

Industria: Santiago Anas (Basque)

Agricultura: Gonzalo Nerdi (Basque)

Benéfico: Alfredo Espinosa (Basque)

Comercio y Abastecimiento: Ramón María de Aldama (Basque)


El Sr. Aguirre, presidente del Gobierno Vasco, en un momento de la sesión solemne de constitución del Gobierno en Gernika.



ARGAZKI GEHIAGO



Iparraldean, 1947an
Agurtzane, Andoni, Josu,
Narkis eta Mari eta
beste lagun batekin.



Baditut liburuan sartu gabeko argazki gehiago, hemen sartuko ditut ez daitezen “galdu” norbaiten etxean edo ar-txiboren batean. Batzuek non eginak diren badakit baina beste batzuek ez, horren arabera izenpetu ditut:

1947 inguruan Hileta batean, bertan ageri da Joseba eta Narkis, Andoniren garai hartako eta bizi guztirako lagun handia ere. Ez dakit seguru baina hizlariaren atzean dagoen atabalaria Andoni izan daitekeela iruditzen zait.



Gaineko 3 jatorrizko argazkiak batuta.. Bertan Joseba ageri da. (bigarrenean eta hirugarrenean)

Bihotzekoak jota 1946an, osatze garaian Donibanen



“Saint Christau”n 1939ko Aberri Egunean



1947go ABERRI EGUNA BAIONAN




1948ko ilbeltzak 4ean, indultua jaso ondoren



KANBOKo tuberkulosiaren aurkako osategian 1941ean



KANBOko tuberkulosiaren aurkako osategia



SENDIA SAINT CHRISTAU-LURBEn





Goikoan bileraren bat dirudi eta aldamenean ospakizunen batean, San Kriston edo Saran.



Donibane-Lohitzunen lagun batzuekin





Donibanen, 1947 inguruan

Zarautzen 1948an Iparraldetik itzuli ondoren.



1949an Zarautzko malekoian, besteak beste, Amale, lehenengo aldiz, haurdun.

Donostian, 1958ko gabonetan, bere seme Andoniren eta Amalaren etxean, lehenengoan bera erdi moztuta, ondoan bere seme gazteena, Kepa, bere aurrean bere hirugarren biloba Amale, Keparen ondoan lehenengo biloba, Ander, onen ondoan bere amaginarreba kide Amalia eta bere bigarren alaba, Agurtzane. Bestean, egun berean, Ander, Amale, Koruko eta "Lasa Jauna" ELAko sindikalista, sendiaren laguna, Andoniren sendiko etxean bizi izan zen 1960-1964 urte inguruan.



Kepa eta Uxueren ezkontzako bazkarian. Lehenengoan Amale eta, erdi moztuta Andoni, atzean bere ezkonanaia Santi. Beste bietan bere emazte Markeliñerekin.



Josu eta Mirenxuren ezkontzan

Zinkunegi Arruti'tar Joseba



***MARKELIÑE
eta
seme alabak***

Ezin dut bukatu liburua Josebaren
emaztea, Markeliñe, aipatu gabe, eta
bide batez, beren seme-alabak ere.

Markeliñe (Martzelina)

1893ko azaroak 06 / 1974ko urtarrilak 09



Markeliñen aita Agustin Felipe zen eta onen ama Francisca Antonia Zufiria argazkian



Markeliñen ama Manuela Antonia Segurola eta onen ama Manuela Josefa Arrizabalaga



Markeliñe, Martzelina guk erabiltzen genuen eran, niretzat "Zarautzko amona" zen. Aurrez esan bezala Aian Jaio zen 1893ko azaroak 6an. Ahizpa bat eta bi neba izan zituen, Juana, Isidro eta Santiago. Ahizpa moja "Mercedaria" izan zen, Santiago "Tetuango gerran" ibili zen, Melillan hiru urte egin zituen.

Ama, **Manuela Antonia Segurola** zen, bere biloba Elviraren esanetan, "seroria" zen, bera ere Aiarra baina honen ama 1862go irailaren 23an Azpeitian, Aratz Errekan jaioa zen. Bertan ezkondu zen **Agustin Felipe Zavalarekin**, hau Aiarra zen, Elviraren esanetan "sacristaua" eta "zapaterua" zen eta "botiñak" egiten omen zituen garai artan (erriko mais-trantzat, gona luzeak eramaten omen ziran garai artan) eta Aian bizi izan ziren. Honen aita Aiarra zen ere, birraitona Amasatarra eta atzeragokoak Urretxuarrak, 1600 inguruan. Eta ama, Martzelinaren amona, Usurbildarra, honen birraitona Lazkaotarra 1710ean jaioa, adar honetan aurkitu du-dan azkenekoa hau da.



Aurrez esan bezala, 1917an ezkondu zen Josebarekin.

Zazpi seme alaba izan zituzten, aurrerago zerbait gehituko dut hauen bizitzatzaz gure oroimenean jarraitzen bai dute, gaur egun denak zenduak direnez.



Gaztaroko bere izaerari buruz ez dakit ezer, hauek dira garai hartako ditudan argazkiak, txikitan bat bere amarekin eta beste bat aita eta neba batekin, gero lehenengo jaunartzekoa eta hurrengoa ezkontza egunekoa da.

Ezkondu ondoren jostuna izan zela dakigu, horrerik esker, ahal zuen moduan atera zituen aurrera seme alabak, Joseba erbestean izan zen garaian eta gerora ere, Josebak ezin izan bai zuen bere medikuntza lanetan jarraitu gehiago, atzerago esan bezela, frankisten errepresioak etzuen eten eta etzioten baimenik eman medikuntzan jarduteko.

Baditugu guda garaiko argazkiak, beren seme-alaben zainketa bere buru gelditu zen gehienbatean zeren Josebak bere sendakintz lanetan jardun behar izan zuen munduko guda hasi eta alemandarrak iparraldera iritxi ziren artean.



Josu eta Keparekin 1937go 11beltzak Ilean Bilbon.



Saint Christaun Martzelina, Joseba eta Agurtzane.



1940 aldera, alemaniarrek Frantzia sartuta, Zarautzera itzuli ziren, bera bakarrik senarra erbestean gelditu behar izan zuten, 4 umeekin, Ane, Josu Kepa eta Agurtzane.

Lehendabizi bere neba Santiren etxera egin behar izan zuten beren etxea eta ondasun guztiak guda ondoren, frankistek lapurtu zizkietenez, aurrerago "Victor Pradera" kalera joan ziren bizitzera, Itxaropena argita-

letxearen ondoan. (Nire kabuz zera pentsatzen dut, naiz eta ez izan horretaz ziurtasunik, Itxaropenako jabea, Patxi Unzurrunzaga, Josebaren oso ezaguna eta laguna zenez eta Josebaren bi seme zaharrenak, biok guda aurrean bertako langileak izan zirenez eta gudaren ondorioz zendu zirenez, Unzurrunzagatarren bidez lortuko zutela etxe ura).

Garai hartan bere jostun jardura bidez bizi behar izan zuten eta nahiko egoera ekonomiko eskasean, garai gehiengoak bezala, bera bakarrik, senarra gabe, ahalegindu behar izan zuen seme alabak hezitzen, naiz eta zaharrenak Anek 18, Josuk 15, lanean hasi ziren segidan etxean laguntzeko, Kepak 11 eta Agurtzane 9 urte zituzten orduan.

1948 garren urtean Joseba itzuli zen Zarautzera, baina bizimodua, lehen esan bezala, ez zen asko hobetu.

Ordutik aurrera ere bere bizi guztian josketan jardun zuen, horretan bere alaba **Agurtzaneren** laguntza ere izan zuen, bera ere jostuna izan zen eta bere gurasoekin bizi izan zen haien bizi guztian.



Gurasoak zainketa beharra izan zutenean ere, Agurtzane bere gain hartu zituen egin behar guztiak.



Iparraldera nolabait joan izan zela badakigu, 1946-47an Joseba gaixo izan zenean behintzat, argazki honetan ikusi dezakegu ez zuela bere jostun jarduera atzean uzten, hor daukagu argazkian jostunen aldizkari bat magalean, argazkia Joseba ikustera iparraldera joandako batean, bere seme Andonik ateratakoa da 1946-47 inguruan...



1974, bere senarra zendu zela hamar urte bete ziren egun hartan eta berak, itxuraz, 1974ko urtarrilaren berderatzian, Josebaren egun berean hamar urte geroago berarekin biltzea pentsatu zuela dirudi eta horrela joan zitzaigun betirako.



Martzelinaren seme-alabak beren emazte eta senarrarekin 1981ean, beren lehenengo biloba eta iloba-biloba Andertxoren 1^o jaunartze egunean

AGURTZANE

1931ko ekainak 17 / 2007ko abuztuak 12



Agurtzane alaba txikiena zen. 1931an jaioa Zarautzen, bere txikitako ezer gutxi dakit.

5 urterekin guda hasi zenean bere bizitza ere nahastu zen eta Bilbon eta Iparraldean igaro zituen ia bost urte, hamar urte bete aurretik.

Ez dakit ze motatako ikasketak egin zituen.



Agurtzane eskalako lagunekin

Etxean bertan zeukaten lantegia. Han izaten ginenean bertan ikusten genituen lan ta lan. Noizean behin enkarguak ere egiten genizkien, ez naiz ahaztuko inoiz enkargu haietako batean gertatutakoa: «Hotel Zarauz» era eraman behar izan genuen "zerbait", ez naiz gogoratzen zer zen, eta "propina" moduan zera eman ziguten: saltxitxa batzuek, gu pozik joan ginen etxera gure "sariarekin" eta izebaren aurpegia ikusita ez genuen ezer ona espero, ez zizkiguten ba saltxitxak periodiko baten orrian bilduta eman! Ez dago dudarik non bukatu zuten "gure saltxitxak" eta gure pena edo frustrazioa... Gaur egun gogoratzen ba naiz hortaz, 60 bat urte pasa ondoren "traumatikoa" izan zela ez dut dudarik...



Bere argazkien bidez badakigu jostun lanetan ezik beste lan batzuetan ere jardun zuela, bere argazki batean ikusi daiteke akordeoiaren hauspoa prestatzen hari dela lantegi batean.

Zarautzera itzuli zirenean bere osaba Santiren etxera joan ziren lehendabiziko garaian, bertan bere lehengusinak Elvira eta Itzia-rekin bizi izan ziren. Argazkian Elvirarekin





1946an, bere aitak bi-hotzeko infartua sufritu ondoren, bera eta bere neba Andoniri iparraldera egindako bisita batean.

Agurtzanek seguruena mendiz pasa behar izango zuen Donibanera irixteko, bere janzkerak hori adierazten dit behintzat.



Bidai berean Narkis eta Marirekin (Andoniren lagun minekin) ere egon zen.



Sendiko eta lagunen ospakizunetan, ez zen sekula faltatzen, argazkian Amale, Kepa eta Usoarekin beste norbaiten ezkontzan.



Sariren bat ere lortu zuen argazkian ikusi daitekenez

Sasoi handikoa izan zen bizi guztian, ba ditugu mendian lagunekin argazki mordoa, bai gazteetan baina baita ere nagusia izanik. Sariren bat ere lortu zuen ondoko argazkian ikusi daitekenez.

Azkenekoetan elurretan lagun batzuekin.



Bere ilobak zaintzeko ere prest izan zen beti.



Ibon, Amaia, Mikel eta Gentzane

Naiz eta orduan gure Donostiatik "oso urruti" bizi, (25 km. gure adinerako asko ziren...) trenez hiru ordu laurdeneko bidaia izaten zen eta ez genuen sarritan egiten. Gabon-gau batzuek eta udara asko bertan pasa ohi genituen, nire anai zaharrenak, Ander eta biok behintzat, gogoratzen naizenez.



1957an Zarautzen gabon-gauetan



Bere aita eta Amarekin, Josebaren azkenetako argazki batean




Bere azkenetako argazkia lagun batzuekin



Jasurekin



Kepa eta Usoarekin



Egunero bere ibilaldia egin ohi zuen, 2007ko abuztuaren 12a zen, igandea, egunero bezala goizean goiz irten zen, hor zebilen bere herrian, zebra-bide bat zeharkatzen zihoan, ia iritxi zen espaloira eta bat-batean txirrindulari batek harrapatu zuen eta, zoritxarrez, buruan espaloiarekin jasotako kolpearen ondorioz, handik denbora oso gutxira, ordu batzuek geroago erietxean zendu zen, sasoi osoan zenean, 76 urte zituelarik.

Berak utzitako argazki albumaren esker ditugu liburu honetan jarri ditudan argazki batzuek, Martzelinaren txikitakoak, Joseba Bartzelonan "Euzkadi Ospitalea"n eta Kanbo ko erietxean dauden gehienak, baita Zarautzko euskal jaietakoak eta, noski, bera mendian agertzen diren guztiak adibidez...

Markelin




1918ko ekainak 5 / 1939ko martxoak 3

Markelin, 1918an jaio zen Aian.

Bere bizitzatiaz ezer gutxi dakit, jarraian bi hitzetan esango dut nik dakidana.

1936an, guda hasi zenean, "Itxaropena" argialetxean lan egiten zuela bere lehengusina Elvirak kontatu didanez.

Filatara dehitua izan zen guda hasieran eta bera "profugo" deklaratu zen.



Ez dakit zer arrazoigatik, gero gertatutakoena jakinda, pentsatzen dut bere osasuna ez zela oso egokia izango gudari joateko, bere anaia bezala eta bere sendiarekin, lehendabizi Bilbora eta gero Iparraldera joan zen.



Baditugu Saint Christaun bere argazki batzuek. Ditugun gehienak garai hartakoak dira.

1939ko martxoaren 3an, Kanboko "Osasuna" ospitalean, biriketako tuberkulosiaren ondorioz zendu zen.





Formulario de inscripción de la República de España. Incluye campos para nombre, dirección, y datos personales. Hay una sección con una lista de nombres y direcciones.



Formulario de inscripción de la República de España, similar al anterior, pero con más detalles de datos personales y una sección de firmas.

GOTZON

1919ko abuztuak 10/1941eko maiatzak 12



Ez daukat datu askorik bere bizitzaz, guda hasi aurretik, bere lehen-gusiña Elvira Zabalak kontatu didanez, Itxaropena inprimategian egi-ten zuen lana bere anai Markelinek bezala, eta guda hasita GUDARI joan zen.

“ZARAUTZKO POSTALAK” libu-
ruxkan agertzen da bere izena
“62 boluntario Loiolako Santute-
gian” zerrendan.



Bertan dionez, gudan zauritua izan zen eta gero “Trabajadores” ean hiru urte t’erdi egin zituen. Ondoren, 1941ean Eibarko gaixoetxean zendu zen.

Preso jausita “Deustoko Konzentrazio-esparruan” izan zen, bere lehengusinak horrela kontatu dit garaian berak bizitutakoa:

Nik 8 urte eta nere gurasoekin juañ giñan Gotzon ikustera al Batallón de trabajadores de Deusto, (gudari bezela, nere jertse azpian txokolatea ta tabakoa gordeta). Emeretzi urterekin hil zan Eibarko sanatorioan. (sic)

Ba dugu ere Itxaropenak egindako oroigarri bat guda ondoren Gotzon eta lankideek gogoratuaz, bere aitak gordetako oroigarrien artean ikusi daiteke 102gn orrialdean.

Elvirak kontatutakoaz gehi, hau ere aurkitu dut Internet bidez⁹:

TESIS DOCTORAL AÑO 2015.

Autora: Ascensión Badiola Ariztimuño.

Licenciada en Ciencias Económicas y Empresariales por la Facultad de Ciencias Económicas de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU).



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

FACULTAD DE GEOGRAFÍA E HISTORIA DE LA UNED.

DIRECTORA DE LA TESIS. Dra. Ángeles Egido León.

La represión franquista en el País Vasco Carceles campos de concentración y batallones de trabajadores en el comienzo de la postguerra.

Batallones de trabajadores en Vizcaya, campos de concentración.

En Vizcaya hubo doce batallones, en gran medida constituidos con hombres procedentes del campo de concentración de Deusto. Fueron los siguientes:

Beste Batallioen artean hau aurkitu dut, nire ustez Gotzonekin ikusi beharra izan zuena zeren hemen agertzen da trenbideak Sondikako aireportuko lanekin batera egin zirela eta ditugun argazki-etan trenbidea egiten agertzen da. Ez dut beste trenbideetako lanik aurkitu "Tesis" honetan behintzat eta oso sakona iruditu zait Ascensión Badiolaren lan hau.

Eta "Batallón Disciplinario" batean izan zela ziurtatuta daukagu.

Los destacamentos penales vizcaínos y la Dirección de Regiones Devastadas.

En Vizcaya hubo varios destacamentos penales relacionados con el trabajo en empresas militarizadas, así como con la construcción del ferrocarril y el aeródromo de Sondica ya mencionado.



⁹ <http://www.errepublika.org/La-represion-franquista-en-el-Pais-Vasco-Carceles-campos-de-concentracion-comienzo-postguerra-16.htm>

Batallón Disciplinario de Soldados Trabajadores nº 30, Sondica.

Operó desde noviembre de 1940 a diciembre de 1942. El primer extracto de prisioneros con derecho a haberes aparece en noviembre de 1940, pero se trata de prisioneros ausentes que están ingresados en diferentes centros.

Este batallón estuvo destinado en el campamento de Larrondo, en Sondica.

En ese periodo 33 hombres de este batallón pasaron por el hospital de Zumaya y uno fue dado de alta en el psiquiátrico de Santa Águeda.





Andoni Pillipa

1920ko ekainak 6 / 1993ko maiatzak 18



Errenterian jaio zen, baina lau bat hilabeterekin Zarautzera joan ziren sendi osoa, gurasoak eta hiru semeak, ordutik guda arte bere gaztaroa bertan bizi izan zuen.



Ikasketak Frantziskanotan egin zituen eta ba dakigu bertako zinemaren inguratu zela argazkien eta zinemaren mundura zeren, bertan, proiektoreak erabiltzen haritu zen oso gazteetatik.

Hamasei urte bete berriak zituen guda hasieran, eta, bera lehendabizi Bilbora eta gero iparralde joan zen sendi ia osoarekin,

aurrez esandako Gotzon izan ezik. Ez zuen amore eman eta ordutik "iheslari" deklaratu izan zen.

Bere aitaren ildotik bera ere EAJn sartuta zen, EGIN hain zuzen bere adinen arabera.

Frankistak Zarautzen sartzean sendi osoarekin (Gotzon izan ezik) Bilbora egin zuten eta handik Iparraldera 1937an, Bilbo frankisten menpe erori zenean.



Iparraldean bizitu behar izan zuen hurrengo 11 urtetan Francok 1948an desertoreei amnistia eman zieten arte.



Iparraldean ez berdinetakoa jarduera asko izan zituen, laborantzan, ostalaritzan, etab. Bera jarduera horietan ikusi daitezkeen argazkiak ba ditugulako, badakigu horietan behintzat haritu zela.

Baina ez zituen baztertu bere politika jarduerak, han ere jarraitu zuen alderdian eta baita ere dantzari, atabalari bezala iparraldeko dantza talde batzuetan, Oldarra taldearekin ere izan zituen harremanak. 1947 gabon kantak abesten izan ziran, naiz eta ohitura hori hegoaldekoa izan, berak Donibanen atera ziren kantuetan eta kontatzen zuenez, baita garai egunkari batean dionez ere, oso harrera onarekin.



Askainen, 1938 aldera ezagutu zuen beranduago bere emaztea izango zena, orduan 14 urteko neskatila, Amale Arzelus.

Laster utzi zuten elkar ikustez zeren Amalaren sendia eta bere sendia ere, alemaniarrek Frantziara sartu zirenean, hegoaldera itzuli ziren eta berak Iparraldean gelditu behar izan zuen bere aitarekin batera, zeren hegoaldean, Espainia aldean, Francoren ejerzitura ala espetxera joan beharko zuen, bera "profugo" zenez eta Aita ere espetxeratua izango zen, dudarik gabe, guda garaian izandako jarduera politikoaren ondorioz. Alemaniarrak Frantzia menperatuta zeukatenean, 1943-44ean, Andoni Paris era joan zen urte bat inguru, bertan, berak kontatuta dakigunez, ostalaritzan haritu zen, eta garai hartan, erresistentziarekin lanetan ere jardun zuen.



Beren ezkongaietako eskutitzen bidez badakigu garai hartako zerbait, berak beren oroimenetan kontatzen zituztenaren arabera.

Iparraldera itzulita, baserrian, etxe langintzan eta ostalaritzan aritu zen, azkeneko urteetan "Instituto Gernika"n Telesforo Monzonek euskeraz idatzitako lehendabiziko liburuen, "Gudarien egiñak" eta "Urrundik"en "zuzentzaile" lanak egin ohi izan zituen, ba ditugu oraindik bi liburuak, Telesforo Monzonek Andoniri idatzitako eskaintzarekin, non bere laguntza eskertzen dizkio.





1948an Francok amnistia eman zieten guda garaiko "iheslarieri" eta Zarautzera itzuli ahal izan zuten.

Ez zuen asko iraun bertan, Iparraldean ezagututako Amalerekin, 1944tik, harremanak izan zituzten gehien bat gutun bidez eta ezkon-gai garai hura gaudituta, elkarrekin egoteko aukera izan zuten eta hi-labete gutxi ondoren, 1948ko azaroaren 27an, Donostian ezkondu zi-ren.

Bederatzi seme alaba izan zituzten 1949 tik 1964 bitar-tean.



Lehenengo 5 bat urte «Central de Materiales de Construcción» en haritu zen lanean, 1953an, San Jeronimo kaleko 13an, argazki denda bat ireki zuen arte. Geroztik, bizi guztian, argazkilaritza izan zen bere ohiko jarduera.

Hala ere, garai hartan ere ez zituen utziko bere aberriekiko lanak, era askotan jardun zuen, bata argazkien bidez euskal kutsuko gaiak ukitu eta zabalduaz, adierazgarria da orduko isilpeko ikastoletako umeari egiten zizkien argazkiak "Urgull" gazteluan eta kaleetan. Krisma pilatxo bat egin zituen baita ere 1963-1968 urte-etan ikastolako eta sendiko umeeekin.



Bestalde, badakigu alde zaharreko denda, alderdiko “isilpeko biltokia” bilakatzen zela askotan. Garai hartan berak iparraldetik ekartzen zituen alderdiko propaganda eta argitalpen “debekatuak” eta bertan zabal-tzen zituen ere.



Ala eta guztiz ere, ez zuen “istripu” larriarik izan poli-ziarekin 1967 arte, orduan Iruñako “Aberri Egunean” Gaztelu plazan zegoela bere bi semeekin, Ander eta Jon Andoni, beren ondoan lurreratu zen EGIk zerura botatako ikurrina, hau neska batek jaso eta korrika alde egin zuen, segidan polizia sekretak iritxi ziren bertara eta hau ez aurkitzean, inguruko batzuek atxi-lotu zituzten, haien artean Andoni ere. Hiru egun egin zituen atxilo, sendiak 10.000 pezetako isuna or-daindu zuen artean.



Jarraian beste atxiloketa bat ere izan zuen, bere bigarren semearekin, honen “hanka-sartze” baten gatik, hau izan zen gertatutakoa:

Tolosan estropada eguna zen eta EGIkoek ikurrina ezarri zuten elizako torrean. Hari argazkiak egiten hari ziren biok, aita eta semea, eta su hiltzaileak joan zi-ren hura kentzera. Hori egin ondoren, semea suhiltzaileari argazkiak egiten hari zela, udaleko plazan, G.C. eko sekreta bat inguratu zitzaion eta atxilotzen saiatu zen, baina orduan hau ihesten saiatu zen, alde zaharrean bueltatxo bat egin zuen korrika bizian “sekreta” atzetik zihoala “al ladrón” oihuka... Bera sal-toka joan zen jende artean, batzuek arrapatzen saiatzen zirenez lapurra zela-koan, horrela iritxi zen “triangulora” eta naiz eta sekreta atzean utzi, aurrez atera zitzaion “udaltzain” bat, “oso handia” zen eta ezin izan zuen harengandik ihes egin. Larunbat gaua arte atxilo izan ginen, aske utzi gintuzten baina “bri-gada politico-social” era pasatuko zutela esanaz.

Horrela izan zen eta ostegunean BPSak atxilotu gintuzten berriro eta hiru egun Amaran pasa genituen, “Manzanas”en eskuetan. Handik ere aske irten ginen “epaitegira” bidali zutela kasua esanaz. Denbora pa-sata, epaileak ez zuen deliturik ikusi Andoni profesionala zela ta...

Tolosatik irten eta hurrengo egunean Burgosera irten ginen, bere “Lambretta” berriarekin (hau “rodajea” zegoen eta ezin zuen orduko 70 km baina azkarrago ibili), baina iritxi ginen bertara. Zertara gindoazen hara? EGIkoak ikurrina bat jarri behar zutela katedralean eta argazkiak egitera. Beste gauza bitxiak ere gertatu ziren bidai hartan, baina gehiegi luzatuko nuke hau. Ikurrina ikusi daiteke 118 orrialdeko argazki multzoan.

Hurrengo urtean, ETAk Manzanas erail ondoren, “estado de excepción” ezarri zuten eta berehala atxilotu zuten berriro bere semea, baina argazki batzuekin zer ikusia zutelakoan Andoni ere atxilotu zuten. Hiru eta lau hilabete pasa zituzten Martutenen eta Carabanchelen, kasu honetan.

Hauek dira berak izan zituen istripu larrienak polizia frankistarekin, beste istripu txikiagoan ere izan zituen Manzanas eta bere “mutilekin” baina, oraingoz, ez naiz luzatuko.

FRANKISMOAREN ONDOREN, Alderdiak zabaltzen zituen Batzokien inauguraziotan eta beste jai gehienu-tan, Alderdi Egunak etab., bere erreportajeak egiten zituen. Baina Alderditik aldendu zen Sabindarrekin bat eginda eta, denbora gutxian, EAn ere izan zen baina azken aldirian, “anarko-abertzale” deklaratu zen eta ez zuen Alderdiekin ezer jakin nahi izan. Eta, beti bezala, ezkontza, bataio eta edozer motatako erreporta-jeak egiten jarraitu zuen.

1993ko maiatzak 18an zendu zen, 56 urtetatik, bihotzeko arazoak izan ondoren, 74 urte betetzeko egun batzuen faltan.

Ane

1922ko maiatzak 18 /



Ane Zarautzen jaio zen eta bertan bizi izan zen bere bizi guztian guda garaia izan ezik, gaztaroa, sendiarekin iparraldean igaro zuen, bertan, Amale Arzelus ezagutu zuen eta adiskidetu ziren.

Harreman honen bidez, Amalek, Aneren neba Andoni ezagutu zuen eta urte mordo bat beranduago, 1944an, bion artean harremanak berriztu zituzten eta 1948an ezkondu ere.



Ane
Eta se-
nideak
ipa-
rral-
dean,
Saint
Chris-
tau-
Lurben



Zarautzera bueltan ezer gutxi dakit bere jardueratzat, badakit gazteetan senargai bat izan zuela, baina , ez dakit noiz, oso gazte hil zen hau, urte batzuek pasata, 1962an Joxe Mari Urkizurekin ezkondu zen. Bere aita Joseba, ordurako osasunez ez zegoen oso bizkor eta bere ordeztan, Josuk egin zuen aitajaun papera.



Ez zuten seme alabarik izan.

Bere jarduerari buruz zera jakin dut bere iloba Amaiaren lagun baten bidez, (hau "Mundo Mejor"en jaioa da), Martzelina eta Agurtzane bizi ziren etxe inguruan eta gazteetan bertan bizi izan zenez, Ane sarritan izaten zela bere ama eta ahizparekin jostun lanetan hauen etxean jakin det.

Hortik kanpo ez daukat beste jardueraren berririk.

Ane 1995ean zendu zen Zarautzen, eta Joxe Mari alargun gelditu zen, hamahiru urtez eta Zinkunegi tarrekin etzuen sekula harremanik galdu. Joxe Mari 2008ko otsailaren 27an zendu zen.



Josu

1925eko urriak 21 / 2004ko Abuztuak 8



Josu Zarautzen jaio zen 1925ean, bostgarren semea izan zen.



Lehenengo mailako ikasketak Marianis-tetan egin zituen baina ia 11 urte zituela guda iritsi zen eta bertan behera gelditu ziren bere ikasketak.

Ordutik aurrera, Amaiaren esanetan, "autodidakta" izan zen, bizi guztian ikasi zuena liburuei eta bere jakin nahiari esker

izan zen, bai Iparraldean pasatako hiru urteetan eta baita Zarautza itzuli zirenean ere, 1940an. Garai hartan, lanean hasi behar izan zuen etxeko egoera larriaren ondorioz, bera baitzen bertan ziren anaietatik zaharrena; beraz ez zuen gehiago ikastera inora joateko modurik izan. Gaur egun oraindik etxean dituzte berak erabilitako liburu pilo bat, matematikakoak etab.



Lanbidez, nik "delineatzaile" ezagutu nuen, baina bere alabak dionez, "ingeniari teknikoa" gisa tratatu zuten bizi guztian bere nagusi edota bezeroek. Garai hartan ez zegoen "delineatzaile" titulurik ikasketa ofizialetan.

Bestalde, Amaiaren esanetan, aitak lotsa gutxi zuen, eta horrek asko lagundu zion beste hizkuntza batzuk ere menperatzera. "Lotsa, zertarako?" zioen beti. Adibidez, Josuk kontatzen zuenez, Ingelesa bere kabuz ikasten ari zenean, 20 urterekin, Zarauzko malekoian lagun bat etorri zitzaion mutiko ingeles batekin laguntza eske, ezin ulertu zebiltzala eta berak zerbait bazekiela eta. Itxuraz, ingeles harekin adiskidetu zen eta proposatu zion "truke" bat egitea: Josu Ingalaterrara joan zen garai batean haren gurasoen etxera eta mutiko ingelesa Zarautzera Josuren familiaren etxera, gaztelera ikastera. Mutikoaren gurasoak ere etorri izan ziren.

Berak zioenez, aurrerantzean, adiskidetasun handiagoa izan zuen mutiko haren gurasoekin.

Argazkietan ikusi dezakegu Josu Londreseko etxean sendi harekin eta Zarauzko malekoian Bettirekin (ama), baita Joseba eta Martzelinarekin ere etxean, Zarautzen izan ziren batean.



Bere lanarekin Alemaniara eta Italiara sarritan bidaiatzen zuen hango "Makina Erreminta" Ferietara eta bi hizkera haiek ere, alemana eta italiara nahikoa menperatzera iritsi zen, bere kabuz. Eta, nola ez, euskara ere bai; bere alabak dioenez, seme alabek baino hobeto menperatzen zuen euskara idatzia, eta azken denboraldian "batua" ere bai. Dena bere kabuz ikasita.

1960ko urriaren 21ean, bere urtemuga egunean bertan, Mirentxu Larrañagarekin ezkondu zen eta Donostiara joan ziren bizitzera, Amara auzora, bertan izan zituzten lehenengo Amaia, bigarren Mikel eta hirugarren Iñaki, azken hori Zarautzen jaio zen.



Amaia 1962ko irailaren 30ean:



Mikel 1964ko urtarrilaren 16an



eta Iñaki 1967ko uztailaren 31n



Aurrez, 1951n, nire aitajauna izan zen eta horregatik, akaso, nire hezkuntzan ahalegindu zen, niri "dibujo tekniko" asko gustatzen zitzaidanez, 14 urte nituela, 1965ean, bere etxean delineatzaile lehenengo ikasketak eman zizkidan eta batxilergoa bukatu eta hurrengo astean, ekainak 1, berak lan egiten zuen enpresan sartu ninduen "delineatzaile ikastuna" "Máquinas MILL"en. Bertan lan egin zuen Josuk 1967 urtera arte gutxi gorabehera, orduan Zarautzera joan ziren bizitzera, eta geroztik bere kabuz jarraitu zuen lanean enpresa askorentzat.

Besteak beste garai hartan "Matesa"ren "lanzadera gabeko" ehungailuan zer ikusia izan zuela badakit, ni orduan berarekin lanean nintzenez. Berak, Herreran zegoen "Talleres Rico" enpresarekin ere harremanak zituen, eta berak Matesarentzat proiektatutako tresnaren bat bertan egina izan zen.

Berak beti "Makina Erreminta" gaian haritu zen. Era berean "sukaldaritzako" tresna batzuk ere proiektatu izan zituela dakit Amaiak dionez eta azken denboraldian, ITB-INDAUX en ere egin zuen lana.

Bestalde, bere alaba Amaiak kontatzen didanez, Lizarrako UNICE "balo fabrikarentzako" "tanpografia" bitartez baloi osoak estanpatzeko makina bat ere proiektatu zuen. Modu horretan estanpatzeko munduko lehenengo tresna

izan zela gogoratzen da. Hau bere azkenaldian, jubilatuta ondoren egin zuen lanetako bat izan zen.

Jubilatu ezkerro, kartoizko eskulturak egin ohi zituen "eskultura lehiaketa" batzuetarako; badituzte maketa haietako pilatxo bat oraindik beren amaren etxean. Lehiaketa haietako batean behintzat, berak proposatutako maketa hautatua izan zen.



Politika kontuan, bere aitaren ildotik, abertzalea zela esan behar dugu, nahiz eta politika lanetan zuzenean ez jardun inoiz.




1946an Iparraldean bere aitari eta anaiari bisitan

Aita errefuxiatuta egon zenean, Josuk Iparraldera pasa behar izan zuen behin baina gehiagotan bere aitari eta anaiari bisitan, aitaren egoeraren ondorioz, aurrez esan bezala Joseba errefuxiatua egon zen 1948 urtera arte. Batzuetan "ibiltzeko baimena" (salvoconducto)ren bat lortzen zuten baina beste batzuetan muga isilpean pasa behar izaten zuten.

Nire aita eta amak ezkongaietan beren arteko gutunen bidez izan dut bidaia haietako baten berri, Donibonetik aita eta bere anai Andonirekin egun batzuk pasa ondoren, Zarautza bueltan Donostiatik pasako zela esan zioten Amaleri eta bera Baztango autobusen geltokian bere zain egon zela kontatzen da gutunean, baina ez zela iritsi. Norbaitek esan zien seguruen hurrengo egunean iritxiko zela, ez zuela autobusa hartzerik izango egun hartan, garai hartan, eta gaur egun ere, Baztanekin lotura autobusez ez baita batere eroso. Horrela izan zen eta hurrengo egunean agertu zen Donostian Josu, bidaia nahiko zaila izan zela baina azkenean ondo bukatu zela esanaz. Ez daukat bidaian gertatutakoa zehatzago jakiterik, jakina da gutun hauetan ez zutela nahi zuten guztia kontatzerik, beti zegoen haiek etsaiaren eskuetan erortzearen arriskua eta...

Hau idazten ari naizela zera jakin dut, bere aitarekin garai hartan gutunen bidez izandako harremanak sendiak etxean gordetzen dituela oraindik.



MAIATZAREN LEHENA 1967

Nire oroimenean dut 1966an Maiatzaren leheneko manifestaldian, elkarrekin egon ginela, gure aita An-doni, Josu bera eta hirurok Bulebarrean. Manifestaldia debekatua zenez, garai hartan edozer gauza debe-
katuta izaten zen noski, nahiko istilu izan genituen poliziarekin ohitura zen bezala.



Xake jokalaria

Honetan ere iaioa izan zela badakigu, horren adierazgarriak baditu sendiak, argazkiak eta karta batzuk. Besteak beste, badakigu Arturo Pomarekin (Espainiako orduko txapelduna) aldebereko xake partida ba-
tean Josuk irabazi ziola, jokoaren emaitzaren papera ere badauka sendiak.



Badugu beste xake-jokalari ukrainiar baten postal bat ere berari zuzendutakoa, 1951an "Nazioarteko xake Maisu Handia" izendatua izan zenaren, "Efim Dimitrijewitsch Bogoljubow"ek 1951-10-31an sinatua. Ez dakigu ziur zergatik, akaso beraren aurka ere jokatu zuen Zarautzen izan zenean.



Josu bere seme-alaba eta ilobekin liakiren bataioan, Agurtzane liaki besoetan eta atzean Gregori, Josebaren arreba.



Josu, Mirentxu, Amale eta Kepa 2003an Arkaitz-Mendin ospatutako bazkarian.



Josu 2004ko abuztuaren 8an zendu zen.

Bere alarguna, Mirentxu, 18 urte beranduago, 2022an, ekainaren 25ean zendu zen.

Kepa

1929ko ekainak 4 / 2009ko uztailak 12



Kepa Zarautzen jaio zen 1929an.

7 urte bete berriak zituela, guda hasi zen eta ondorioz, bere sendiak pasa zituenak pasa behar izan zituen ere, ez naiz gehiago luzatuko honetan aurrez kontatuta dagonez garai hartan jasandakok.

Baina argazki batzuek ba ditugunez, hemen jarraian sartuko ditut batzuek.



Saint Christaun Andoni, Jasu eta Kepa beren "ondasunak" eramaten.



Zinkunegi Arruti'tar Joseba



Zarautza itzuli zirenean, berak 12 urte zituela, ikasketak jarraitzerik izan zuen eta “mekanika industrial” egin zuen.

Ikasketak bukatu ondoren lanean hasi zen lehenik eta urte askotan “Lizundia Textil” lantegian. Tresnen mantentze eta konpontze lanetan haritu zen.



Gaztetan kirolaria izan zen, “pertika-jausian” ibili eta boxeolaria ere izan zela ondoko argazkian ikusi dezakegu.



1961go ekainak 21ean Kepa eta Usoa Ortiz de Zarate ezkondu ziren.

Zarautzen bizitu ziren bizi guztian, bertan jaio ziren beren bi alaba eta semea.



1962go uztailak 27an Gentzane etorri zen.



1963go
urriak
10ean
Ibon



1970ean martxoak 12an
Maidar.
Zoritxarrez Maidar oso gaz-
te, gaixotasun baten ondorioz,
2002go urriaren 21
ean zendu zen.

1966an “elektro-tresna”ren denda bat ireki zuten, berak eta emaz-
teak, Zarautz erdian, gaur egun Gipuzkoa izena duen kalean.

1976an Denda “haurrentzako tresneria” bihurtu zuten.

1982an Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean plaza bat lortu zuen
eta Gasteizen haritu zen 1985 arte, urte hartan Donostiara aldatu zi-
oten lantokia eta bertan haritu zen 1994an jubilatuta artean.

Azken garaian “glaukoma”ren ondorioz itsutzen joan zen eta azkenean ezer gutxi ikusten zuen.



2003an Arkaitz-Mendin ospatutako bazkarian.



*Kepa 2009go uztailaren 12an zendu zen.
Bere alarguna, Usoa, bera da zorionez, belaunaldi honetako gurekin jarraitzen duen bakarra.*